

Buenavistako taldeak Egia kultur etxera

Kultura Patronatuak eta Buenawista Prolecczioms musika elkarteak hitzarmena sinatu berri dute. Horren arabera, Egia kultur etxean entseatzen hasiko dira elkarte horretan ari diren taldeak. Elkarteak Buenavistan duen egoitza bota egingo dute, bertako hirigintza egitasmoak direla-eta.

Ainhoa Irazu

Donostiako musika talde askoren harrobia izan da Buenawista Prolecczioms elkarte. Urte luzez, Buenavistako eskola publikoa izandako eraikinean egon da elkarte honen egoitza. 70eko hamarkada amaieran hasi ziren lehendabiziko taldeak bertan entseatzen. Egunak joan, egunak etorri, taldeak ugaritzen joan ziren, eta egoera kaskarrean zegoen eraikina konpontzen hasi ziren, euren beharretara egokitzeko.

80ko hamarkadan sortu zen ofizialki elkarte, eta 100 talde inguruk jardun dute Buenavistako etxean, ordutik hona: Barracos, La Perrera, Ezin izan, Autodefensa, Sr No, NCC...

Garai batean, talde askoren entsegu toki izateaz gain, kontzertuak egiten ziren Buenavistako etxean, baina gaur egun

Trintxerpeko Mogambo aretoan antolatzen dituzte kontzertuak.

Lokalak Egian eta bulegoa Puion

Bistan da musikaren arloan eskarmentu handia duela elkarteak. Horrez gain, hirian horrelako elkarte bakarrenetakoa da. Hala ere, Buenavistako hirigintza proiektua dela-eta, elkartearen egoitza eraitsiko du Udalak. *"Albiste jaso genuenean, Udaletxera jo genuen ordezkoko lokala eskatzeko. Prozesu luzea izan da, baina azkenean hitzarmena sinatu dugu, eta taldeok entseatzeko tokia lortu dugu Egian. Horrez gain, bulego gisa erabiltzeko lokala utzi digute, Puion. Pozik gaude. Hala ere, konponbidea behin-behinekoa da. Izan ere, hitzarmena urtebetekoa da. Hori bai, urtero luza daiteke",* esan digu Andoni Etxebeste elkarteko presidentek.

Hamaika talde ari dira gaur egun Buenawista Prolecczioms elkartearen —beste hainbeste bere kabuz antolatu dira hitzarmena sinatu aurretik—, eta 11 taldeek tokia izango dute Egia kultur etxean. Apirilean hasiko dira kultur etxean prestatutako hiru lokaletan entseatzen, eta aste osoan egongo dira zabalik lokalak. Astegunetan —11.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 22.00etara—, eta asteburuetan —16.00etatik 22.00etara—.

Baita hiriko beste taldeentzat ere

Elkartekoak ez dira izango Egia kultur etxean entseatzeko lekua izango duten talde bakarrik. Izan ere, hiriko musika taldeentzat lokalen alokairu zerbitzua abiatuko du Kultura Patronatuak, apiriletik aurrera. Alokairua orduka izango da. Buenawista Prolecczioms elkarteak berak kudeatuko du zerbitzua. *"Pozik gaude kudeaketa gure esku utzi dutelako. Esperientzia berria da, eta elkarteak urteak daramatza halako zerbaitez eskatzen. Oso kontuan hartuko ditugu erabiltzaileen eskaerak, ahal den neurrian erantzuna izan dezaten",* dio Andonik.

Guztira, zortzi entsegu lokal izango dira kultur etxean: hiru elkarteko taldeentzat, eta beste bost, Donostiako beste taldeentzat. Gainera, talde guztientzako 70 metro karratuko bilto-ki izango da.

Egia kultur etxean entseatu nahi duten taldeentzako, izen emate epea zabalik da jada. Informazio gehiago nahi duenak 943 298032 zenbakira hots egin dezake.



Alberto Elosegí